



## I.E.S. PIO BAROJA BHI IRUN

Guraso agurgarriak:

Zuen seme-alabarentzat **aurtengo kurtsoa garrantzitsua izango da**, ondoren egingo dituen ikasketak erabakitzeke orduan. Tutore eta orientatzaileak bide horretan lagundu nahi zaitugu, eta uste dugu gurasoek ere, gai honetaz zuen kezka izango dituzuela. Horregatik, azaldu nahi dizuet, batetik, zein den kurtso honetan ikasleekin landu nahi dugun egitasmoa, eta bestetik, zuek informazioa nola jaso dezakezuen.

IKASTETXEAN egingo duguna:

- Taldeko **orientazio saioak** egingo ditugu informazioa aztertu, beharrianak antzeman eta bakoitzak bere hausnarketa egin dezan.
- Ikasleei hainbat **baliabide** emango dizkiegu:
  - Galdetegi pertsonala, "Batxilergoa ondorengo erabakia", formatu digitalean (Drive) beteko dute; haiek, ikasturtean zehar, dokumentu hau edita dezakete, honela, edozein momentutan, zerbait aldatu edo gehitu dezakete. Dokumentu horretan, ikasle bakoitzak bere erabakia azalduko du, edo prozesuan aurkitzen dituen zalantzak plazaratu ditu edo/eta aldi berean, orientaziori buruzko eskaerak ere egin ditzake. Guretzat dokumentu hau oso garrantzitsua da, guk, haien erantzunen bitartez, ikasleen erabakiak eta beharrak ezagutuko ditugulako eta ondorioz, guk modu azkar eta eraginkorrean bidera ditzakegulako.
  - EHU unibertsitateak eta beste unibertsitate batzuek argitaratzen dituzten materialak.
  - Lanbide Heziketako informazio aldizkaria, IKASLANek argitaratzen duen zikloen eskaintza: ([https://www.ikaslangipuzkoa.eus/eu?set\\_language=eu](https://www.ikaslangipuzkoa.eus/eu?set_language=eu)).
  - Orientazio mintegiak prestatzen dituen materialak, haien eskura egongo dira, bereziki:

### **Pio Barojako Orientaziogunea**

Hau sites bat da, erabakien prozesuari buruzko berriak aurkituko dituzte, ikasgelan egingo ditugun aurkezpenak eta Unibertsitatean Sartzeko Ebaluaziori buruzko informazioa.

Gainera, ondorengo ikasketei buruzko informazioa eguneratuko dugu (Unibertsitateko graduak, Lanbide Heziketako zikloak eta erregimen bereziko ikasketak); informazioa era sistematikoan eta sailkatuan antolatuta dago, haien batxilergoaren ondorengo ikasketen bilaketaren prozesuan errazteko asmoz.

Gonbidatzen zaituztegu tresna hau erabil dazazuela eta zuen iradokizunak ongi etorriak izango dira.

- Ikasgelan emango zaien era zuzeneko informazioaz gain, ikasleei, berri garrantzitsuei buruz, garaiz informatuko zaie, posta elektronikoen bitartez; hau erraminta azkarra da eta informazioa irits dadila ziurtatzen digu, baldin eta institutuaren posta kontsultatzen badute maiz.
- Banakako **elkarrizketak** ere edukiko ditugu zalantzak argitzen eta kezkek bideratzen laguntzeko, telefonoaren bitartez edo korreo honetara idazten: [orientazioa@iespiobarobjabhi.net](mailto:orientazioa@iespiobarobjabhi.net)
- Udaberrian, institutuan bertan, Unibertsitatean Sartzeko Ebaluaziorako izen-ematea egingo dugu.
- Eskaeren arabera, Unibertsitate Publiko eta Pribatuei buruzko hitzaldiak antolatuko ditugu: hauek ostegunetan 14:05etatik 15:00etara izango dira.
- Maiatza eta ekaina bitartean, Unibertsitaterako aurre-izen emateari buruzkoa egingo dugu.
- Ekainean, Lanbide Heziketako Goi Mailako Zikloetan aurre-izen emateei buruz informatuko zaie.

IKASTETXETIK kanpoan egingo duguna:

**HITZALDI, AZOKA, ATE IREKIAK** guraso eta ikasleek bisitatu ditzakezuenak:

- **Unitour azoka**, batez ere hemendik kanpoko unibertsitate eta ikastetxe batzuei buruzko informazioa jasotzeko (Donostian abenduak 10an. <https://www.unitour.es/eventos/san-sebastian>).
- **Euskal Herriko Unibertsitateak** antolatzen dituen **Orientaziorako Azokak** (aldez aurretik izena eman behar da eta ikasleentzat dira) Donostian, Gasteizen eta Bilbon, graduen arabera daude eta **Jardunaldi Irekiak**, jardunaldiak ikasleentzat dira baina batzuk publikoarentzat ere irekita daude. Datak ez daude oraindik zehaztuta: <https://www.ehu.eus/eu/web/sou/hasiera>.
- Unibertsitate Pribatuetan informazio saioak eta sarbide-probetarako izen-ematea **azaroa/abenduan** hasten da. Beraz, aukera horretaz pentsatzen ari direnak lehen bait lehen informatu behar dira. Ikasketak bertan egiteko izen-ematea maiatza inguruan amaitzen da.
- **Lanbide Heziketako** institutuetan ate irekiak udaberrian izaten dira.

Bitartean, gurasoek gai horiei buruz inguruko informazio gehiago nahiko bazenute, Orientazio Mintegiarekin harremanetan jar zaitezte, gustura zuekin hitz egingo dugu.

Besterik gabe, informazio hau zuen intereskoa izango delakoan, har ezazue gure agurrik beroena.

**Orientazio Mintegia**

[orientazioa@iespiobarobjabhi.net](mailto:orientazioa@iespiobarobjabhi.net)